



1521/2025 EBAZPENA, uztailaren 16koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen azaroaren 25eko 2236/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko urtarrilaren 16ko EHAA 10 zk. eta 2025eko otsailaren 24ko BOE 24zk.).

Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen urtarrilaren 30eko 198/2025 Ebazpenaren bidez, zuzendu egin dira lehiaketara deitutako lanpostuari eskatutako titulazioa eta II.2.5 atala. 2236/2024 Ebazpenaren eranskinekoa, azaroaren 25ekoa, Ospitaleko Farmaziako Osasun Ataleko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioaren Unitatea-Farmabide) betetzekoa (2025ko otsailaren 14 ko EHAA 31 zk. eta 2025eko otsailaren 24ko BOE 47 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko martxoaren 17an amaitu zen.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 19ko 512/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakaoko ESIko Ospitaleko Farmaziako Atal Sanitarioko buruaren lanpostua (Farmazia Soziosanitarioko Unitatea-Farmabide) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Usansolo, 2025eko uztailaren 16a.



Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,
GEMMA FERNANDEZ VILLALBA



I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-KO OSPITALEKO FARMAZIAKO ATAL
SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA (FARMAZIA SOZIOSANITARIOKO
UNITATEA-FARMABIDE) IZENENKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Beatriz Corcostegui Santiago and.

Baztertuak:

- Inork ez



II. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-KO OSPITALEKO FARMAZIAKO ATAL
SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA (FARMAZIA SOZIOSANITARIOKO
UNITATEA-FARMABIDE) IZENEKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Miren Martínez Ayuso and. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Arreta Integratuaren Zuzendaria).

Ordezkoa: Magdalena María Premanes Losada Bilbao-Basurtuko ESIko Arreta Integratuaren Zuzendaria).

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Lorenzo Rodriguez Gonzalez jn. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Zuzendariorde Medikoa).

Ordezkoa: Maite González Rodriguez and. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Arreta Integratuaren Zuzendariorde).

Bigarren batzordekidea

Titularra: Unax Lertxundi Etxebarria jn. (Arabako Osasun Mentaleko Sareko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua).

Ordezkoa: Anunciación Arana Osinaga and. (Bizkaiako Osasun Mentaleko Sareko Farmaziako Zerbitzu Sanitarioko Burua).

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Olatz Ibarra Barrueta and. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Farmaziako Zerbitzu Sanitarioko Burua).

Ordezkoa: Monike De Miguel Cascón and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Farmaziako Zerbitzu Sanitarioko Burua).

Laugarren batzordekidea (IVAPEk proposatua)

Titularra: Ana M^o de Juan Arroyo and. (Uribeko ESIko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua).

Ordezkoa: María Angeles Gil Lemus (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua).

Idazkaria:.

Titularra: Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta and. (Barrualde-Galdakaoko Pertsonaleko Zuzendariordea).

Ordezkoa: Maite Yeregui Huarte and. (Bilbao-Basurtuko ESiko Pertsonaleko Zuzendariordea).